



URTEKO TXOSTENA, IKUSKATZEKO NOLA BETE DEN ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO SEKTORE PUBLIKOKO ORDEZKARIEN ETA KARGUDUN PUBLIKOEN KODE ETIKO ETA JOKABIDEZKOA.

Herri Administrazioiko gobernu eta administrazio onaren programek azpimarratu beharra daukate zein garrantzitsua den neurriak proposatzea gobernu ekintzen eta herri administrazioaren erdigunean diren balio zibikoak bete daitezen. Zehazki, Diputatuen Kontseiluaren irailaren 3ko 477/2015 Erabakiaren bitartez onartu zen Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargudun publikoen eta ordezkarien etikaren eta gobernu onaren kodea, lortzearren gobernu on bat, printzipio etikoetan oinarritua, eta herritarrek hobeto jakin ditzaten zer betebeharrak dituzten interes orokorraren kudeaketaz arduratzen diren pertsonak.

Hala, bada, ezartzearen kode hori zaindu eta ebaluatzeko mekanismo eraginkor bat, zazpigarren atalaren bidez Gobernu kideen eta Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko goi kargudunen Etika Publikoko Batzordea eratu zen, ardura duena erantzuteko Gobernu Onaren eta Etika Publikoaren Kodeari buruzko kontsultei eta sustatzeko kode horren betetzea eta hobetzea.

Nola-eta igaro den jada urtebete Batzorde hori eratze bileran egin zenetik, hain zuzen, 2015eko urriaren 21ean, eta kontuan hartuz organo horri dagokiola urteroko txosten bat egitea bere jardueraren gainean eta ikuskatzea nola betetzen den Gobernu Onaren eta Etika Publikoaren Kodea.

Gauzatutako jarduerak aztertzeari ekiteko, komeni da, hasteko, adieraztea ezen Etika Publikoaren Batzordeak ez duela jaso ez oharrik, ez kontsultarik, ez iradokizunik Etikaren eta Gobernu Onaren Kodean jasotako aurreikuspenei buruz; kodearen aplikazio eremuaren peko ezin pertsonak ez diola egin organo horri kontsultarik, ez eta aurkeztu salaketarik edo kexarik, kodean jasotako balioak, printzipioak edo jokabideak ez betetzea dela-eta.

Batzorde horrek ez du egiaztatu inongo huts egiterik, baina, hala ere, egoki jotzen da txosten hau egin dadin, zeren eta, pentsatuz gero txostena egin behar dela kode honetan jasotzen diren printzipio etiko eta jokabidezkoak huts egiten direnean bakarrik, urratu egingo bailitzateke gaur egun ezartzen ari den zintzotasun instituzionaleko sistemen sinesgarritasuna, eta horrek ekarriko luke ospea galtzea herritarren aurrean eta haiek konfiantza galtzea.

Hori dela eta, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko Etikaren eta Gobernu Onaren Kodean jasotako **printzipio etikoen eta jokabidezkoen betetze mailaz** den bezainbatean, eta betetzearren kode horren zazpigarren atalaren 3. puntuan jasotzen den agindua, adierazi beharrean gaude:



Lehenengoa. - Gobernuko kideen eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko goi kargudunen Etika Publikoko Batzordeak ez du egiaztatu kargudun horiek aplikatzekoa zaien Etikaren eta Gobernu Onaren Kodean jasotako printzipio etiko eta jokabidezkorik huts egin dutenik beren karguetan.

Bigarrena. - Gobernu onaren neurriak eta gastu publikoari eusteko neurriak eta austeritateari dagozkionak betez, ez da egiaztatu era ezegokian erabili direnik Foru Gobernuaren Kontseiluko kideek eta goi kargudunek bere esku dituzten Arabako Foru Aldundiaren jabetzako ondasun eta zerbitzuak.

Hirugarrena.- Azkenik, Etika Publikoko Batzordea eratu zenetik, alegia, 2015eko urriaren 21etik, eta txosten hau sinatu den arte, ez da agerian geratu huts egin denik lehen aipatutako printzipio etiko eta jokabidezkorik.

Amaitzeko, 2015eko urriaren 21ean, eta Diputatuen Kontseiluaren irailaren 3ko 477/2015 Erabakian jasotzen diren aurreikuspenez den bezainbatean (Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargudun publiko eta ordezkarien Etika Publikoaren eta Gobernu Onaren Kodea onartu zen erabaki horrekin), eta ikusirik ez dela izan ez kezarik, ez salaketarik, ez oharririk edo ez-betetzerik kode hori dela-eta, baieztatzeko moduan gaude ezen Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargudun publikoen eta ordezkarien jardura gauzatu dela interes orokorrari zerbitzu eginez, eta kode horretan eta antolamendu juridikoan Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoan nagusi izateko ezarritako printzipio nagusiak zorrozki betez.

Besteak beste, agiri ireki eta malgu bat egitearren, kontuan hartuz erreferentziatzen Etikako Kodearen zazpigarren ataleko 5. puntuan xedatutakoa, batzordeko kideek uste dute egoki dela **gomendio** hauek ematea:

Lehenengoa. Azkartzea Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargudun publikoen eta ordezkarien Etikaren eta Gobernu Onaren Kodea kolektibo horretan hedatzeko lana, uneoro eraginkorren irizten zaien hedapen eta prestakuntza mekanismoen bitartez, ezagutaraztearren Batzorde horren eginkizunak, besteak beste, agiri hori aplikatzearen inguruan sortutako kontsultei erantzutekoa.

Bigarrena. Kontuan izanik ezen foru gobernuak laster onartuko duela foru kargu publikoa nola bete behar den arautuko duen foru arauaren proiektu bat, batzorde horretako kideei igortzea proiektu hori, egoki deritzeten ekarpenak egin ditzaten.